

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2h 30 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai dira eta guztira 34 item. • Lehenengo ariketan item bakoitzak 0,4 puntu balio du; bigarren eta hirugarren ariketetan 0,8 puntu. • Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.700 hitz gehienez. 	50-60 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	90 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

ERABAKI ESTRATEGIKOETAN, LANDA-EREMUEN BALIOAK AINTZAT HARTZEA KOMENI DELA ONDORIOZTATU DUTE

Erresuma Batuan egindako ikerketa batek erakutsi duenez, landa-eremuen erabilerari buruzko erabakietan ez dira aintzat hartzen eremu horiek eskaintzen dituzten zerbitzu guztiak, hala nola, atmosfera garbitzea, uholdeetatik **1**, biodibertsitateari eustea, aisialdirako aukerak ematea... Ikertzaileen ustez, zerbitzu horien balio osoa kontuan hartzea **2** izango litzateke, bai gizartearentzat, bai biodibertsitatearentzat.

East Angliako Unibertsitateko Ian Bateman ikertzaileak gidatu du ikerketa-taldea, eta, taldekideen artean, Ikerbasque eta BC3ko (Basque Centre for Climate Change) Unai Pascual ikertzailea ere aritu da. Adierazi dutenez, Erresuma Batuko egoera aztertu badute ere, erabilitako metodologia beste leku askotan ere erabil daiteke, eta, horietan, antzeko emaitzak lortuko liratekeela **3** dute.

Hain zuzen, Europako toki gehienetan nekazaritzak menderatzen du luraren erabilera. Europar Batasuneko nekazaritzaren urteko balio guztiaren ia erdia laguntza publikoan **4** da (% 70, % 40 eta % 30 baino gehiago Irlandan, Erresuma Batuan eta Espainiar estatuan, **5**).

Ikertzaileek Erresuma Batuan laguntza publiko horrek duen **6** begiratu diote, eta, horretarako, nekazaritza-lurren balio ekonomikoa kalkulatu dute (bai oraingoa, bai etorkizuneko) klima-aldaketaren eragina kontuan hartuta. Balioa kalkulatzeko, aintzat hartu dituzte **7**-produzioaren balioa eta lotutako ingurumen-inpaktuak (klima-aldaketaren **8** diren berotegi-efektuko gasak eta jendearentzako atsedeen-lekuak barne), eta baita nekazaritza intentsiboak eragindako tokiko espezieen eta biodibertsitatearen **9** ere.

Emaitzak ikusita, ikertzaileek **10** dute diru-laguntzek asko **11** dituztela landa-eremuen gaineko erabakiak, eta ezinbestekoa dela eremu horietako ekosistema-zerbitzuak ere kontuan izatea. Aldaketa hori gauzatzeko, erronka praktiko batzuk ere identifikatu dituzte; horien artean, nagusietako bat hau da: nekazariak parte hartzea gizartearen **12** luraren erabileraren aldaketetan. Izan ere, Unai Pascualen hitzetan, «bada garaia nekazariak saritzeko, gizarteak estimu handitan dituen funtsezko ekosistema-zerbitzuak **13**. Nekazariak gure landa-inguruaren administratzaile izan daitezke, horrela guk gizarte moduan hurrengo belaunaldiei lur osasuntsuak utz diezazkiegun».

Neurri batean, ikerketaren ondorioek bat egiten dute Izaskun Casado EHUko ikertzaileak egindako azterketaren ondorioarekin. **14**, EHUko *Paisaia, biodibertsitatea eta ekosistemen zerbitzuak* izeneko ikerketa-taldeko kideetako bat da Casado, eta Bilbo aldeko herritarrek ingurune berdeari buruz duten pertzepzioa aztertu du.

Casadok bostehun pertsona elkarrizketatu ditu, eta, jaso dituen erantzunen arabera, inkestatutako ia pertsona guztiak **15** dira ingurune berdeak ekosistema-zerbitzuak ematen dituela, eta balioetsi eta estimatu egiten dute. **16**, pertsona horien ia % 80k kultura-zerbitzuak identifikatzen baditu ere (aisialdia, paisaia, atsedena...), heren batek baino ez ditu erregulazio-zerbitzuak identifikatzen, eta are gutxiagok (% 1,8) identifikatzen ditu ekosistemen hornidura-zerbitzuak. **17**, baina, eremua kontserbatzen laguntzeko prest daude.

Emaitza guztiak ikusita, ikertzaileak **18** jo du halako ikerketak egitea, eta erabakiak hartzen dituztenek emaitza horiek aintzat hartzea. «Ekosistemek eskaintzen dizkiguten zerbitzuak eta biztanleen iritzia ezagututa, oinarri sendoa izango dugu nolako etorkizuna nahi dugun jakiteko», esan du Casadok.

GALARRAGA AIESTARAN, Ana. Elhuyar aldizkaria, 2013ko urriaren 12a. Egokitua.

1. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

1. a) babestea
b) tolestea
c) loratzea
d) ernaltzea

2. a) hauskorra
b) xarmagarria
c) mesedegarria
d) baikorra

3. a) asmatzen
b) salatzen
c) hedatzen
d) aurreikusten

4. a) oinarritzen
b) jaurtitzen
c) aurrezten
d) murgiltzen

5. a) batez beste
b) behinik behin
c) hurrenez hurren
d) ozta-ozta

6. a) oihartzunari
b) aldizkakotasunari
c) indusketari
d) errentagarritasunari

7. a) eritasun
b) elikagai
c) ahalmen
d) orube

8. a) aurkibide
b) erantzule
c) ordezeko
d) jomuga

9. a) ahalmena
b) galera
c) esku-hartzea
d) zabalkundea

10. a) aldarrikatu
b) uztartu
c) ondorioztatu
d) parekatu

11. a) laguntzen
b) goraiipatzen
c) osatzen
d) baldintzatzen

12. a) onurarako
b) euskarrirako
c) ingurugirorako
d) uztarako

13. a) argitaratzeagatik
b) berresteagatik
c) ekiditeagatik
d) bermatzeagatik

14. a) Bestalde
b) Hain zuzen ere
c) Hurrenez hurren
d) Hala ere

15. a) jasotzen
b) jabetzen
c) atzematen
d) behatzen

16. a) Areago
b) Behinik behin
c) Alabaina
d) Hala izanda

17. a) Hargatik
b) Izan ere
c) Azkenik
d) Aldi berean

18. a) ezinbestekotzat
b) hala-moduzkotzat
c) nolanahtkotzat
d) bestelakotzat

2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

BESOKO UME FILOSOFIKOA: Zer dago haurtxo baten buruaren barruan?

Jaioberriek badute ikusteko behar diren begi-egitura guztiak, baina erabiltzen ikasi behar dute, «ikusten» ikasi behar dute. Lehen aste eta hilabeteetan, nola ikusi ikasten dute: fokuratzen, begien mugimenduak bateratzen, koloreak bereizten, sakonera ezagutzen, begi-esku koordinazioa garatzen... Hazi ahala, gero eta trebetasun konplexuagoak garatzen joaten dira: besteak beste, ikusmen-pertzepzioa, integrazio bisuala eta motorra, mundua ulertu eta interpretatzeko behar berriei erantzun ahal izateko.

Bai, baina nola interpretatzen dute ikusten dutena? Zerk erakartzen du txikiaren arreta aurpegi, objektu edo mugimendu bati denbora luzean begira egoteko? Zer ezkututzen da jaioberri baten buruan? Geuk ere begiratu genion inguruneari haurtxoen begi handi eta zoragarri horien bidez. Zoritxarrez, Freud-ek deitutako “hur-*amnesia*” dela eta, erabat ahaztu zaigu gure bizitzaren hasiera hartan munduari buruz genekiena.

Helduok pertsona bihurtzen ditugun ontzi huts eta irrazionalak al dira jaioberriak eta haurtxoak? Egia al da haien pentsaera eta esperientzia mugatuak direla duela gutxi arte zenbait zientzialarik uste izan duten bezala? Gaur egun, ia inork ez du hori pentsatzen. Azken hamar urteotan, benetako iraultza gertatu da besoko haurrak –eta haurrak, oro har– ulertzeko moduan. Haurren garapen kognitiboan aditua den Alison Gopnik-ek bere *The Philosophical Baby* liburuan dioenez, haurtxoak gai dira uste genuena baino askoz gehiago ikasteko, sortzeko eta esperimendatzeko. Eta are gehiago: umetxoak helduak baino azkarragoak eta begirunetsuagoak dira, eta baita «kontzienteagoak» ere.

Izan ere, haurrekin egindako zenbait esperimenteren ondorioz, Gopnik-ek ondorioztatu du kanpoko irudiak, hotsak eta gertaerak barra-barra iristen zaizkiela besoko umeei, inolako murrizketarik gabe. Garapenarekin batera, mundua bere osotasunean hartzeko modu hori galduz joaten da: helduok atentzioa non fokuratu kontrolatzen dugu. Txikiak, ordea, hemen eta orainean «harrapatuta» daude. Arreta etengabe eta orokor horretaz baliatzen dira gurasoak eta artatzaileak umearen begirada kolore askotako edalontzitik desbideratu eta koilarara eramateko, adibidez. Susmatu ere egin gabe arreta hori ez dela soil-soilik mekanikoa, neurobiologiako

ikerketa berriek frogatu duten bezala.

Atentzioa objektu zehatz batean fokuratzeak ikus-eremuan dauden objektu guztien artean aukeratzea dakar. Horretarako, garunean, kortex aurrefrontala jartzen da abian. Inhibizioaren eta kontrolaren erantzulea den burmuineko zona hori txikiengan beranduen garatzen denetako bat da. Ondorioz, hiru urte baino gutxiago duten txikien kortexak ez ditu oraindik dagozkion diskriminazio-funtzioak betetzen, ez ditu emozioak, oroimenak eta abar filtratzen eta hierarkizatzen. Eta mundua hautemateko atek zabal-zabalik ditu; kortex aurrefrontala garatu ahala, ixten joango direnak.

Besoko umeei ikusten duten eta helduok galduta dugun mundu hori berresperimenta omen dezakegu zinema batean. Proiekzio-areto ilunean, ingurumarian murgilduta gaude, hiru urtetik beherako haur bat bezala. Rafael Malach neurobiologoak horixe frogatu zuen 2004an egindako ikerketa batean. Film luze bat ikusten ari ziren bost ikusleren kortex aurrefrontalean garun-jarduerarik ez zegoela ikusi zuen: filmaren irudiek eta soinuek erabat hartuta zeuden... besoko umeei gertatzen zaien moduan.

Neurobiologoaren iritziz, bizitzaren hasierako hiru urteak horrela igarotzea, pantaila handi baten aurrean liluraturik dagoen ikusle bat bezala, oso onuragarria da pertsonaren garapenerako. Izan ere, gogoia etengabe zabalik eta irudimena erne, txikiak ingurunea aztertzen aritzen dira, arau logikoak azkar eta eraginkortasunez ateratzeko. Garunaren zati horren garapen berankorra adimenaren sekretu ebolutiboa izango litzateke.

Kortex aurrefrontalaren heldugabetasun horri esker haurrek duten irekitasuna lantzeko, gurasoen eta artatzaileen zeregina garrantzitsua da. Baina, horrez gain, txikien buruetan badira mundu zabal hori ulertzeko eta egituratzeko konexio-sistema genetikokoak. *Naive physics*-en egindako ikerketek erakutsi dute besoko umeei badakitela beren ikusmenetik kanpo atera diren objektuek existitzen jarraitzen dutela. Kausa-erlazioaren arteko harremanak ez ezik, batura eta kenketa sinpleak ere ulertzeko gai dira, «ikasi» gabe.

0-3 urteko haurrek beste pertsonari buruz egiten duten interpretazioa ere –*Naive psychology* edo

buruaren teoria- asko ikertu da azken urteotan. Aurkikuntza berri batzuen arabera, 6 hilabeteko umeek ebaluazio sotil bat egiten dute, pertsonen arteko interakzioa ikusi eta gero: aukeran, nahiago dute hurkoaren helburuak betetzen lagundu duen pertsona, bestearen xedeak oztopatu dituen baina.

Inork ez daki besoko umeek ulertzen dutena kontzienteki ulertzen duten, baina aipatu ditugun

azken aurkikuntzek frogatu dute haien garuna ez dela kaosa; aitzitik, izugarritzko ezagutza-, irudimen- eta sormen-gaitasunak dituzte, ikasi gabeak eta ikasten joaten direnak. Enigma handia da, ordea, inkontzientziatik kontzientziarako igarobidea nola egiten den.

STÜRTZE, Alizia. <www.gaiak.net>, 2013ko ekaina.
 Egokitua

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

19. Zergatik ez dute ondo ikusten ume jaioberriek?

- a) Gauzen mugimenduak ikusten dituzten arren, koloreak ez dituztelako bereizten.
- b) Mundua interpretatzeko osagarri fisiko nahikorik ez dutelako.
- c) Ikusmen-baliabideak izan arren, horien funtzionamendua ikasi behar dutelako.

20. Zer da haur-amnesia?

- a) Freuden arabera, jaioberrien buruan ezkututzen den gaitza.
- b) Bizitzaren hastapenetan bizi izandakoa burutik baztertzea.
- c) Hautxoien begien ezaugarrien ondorioz sortutako egoera.

21. Zer azaltzen da *The Philosophical Baby* liburuan?

- a) Hautxoien pentsaera mugatua dela eta gaitasun falta dutela dioten teoriak baztertu egiten dira.
- b) Azken hamar urteetan jaioberriak ulertzeko egon diren modu desberdinak.
- c) Besoko haurren izaera helduok moldatzen dugula, geure esperientzia zabalarekin.

22. Zer erakutsi dute hurrekin egindako zenbait esperimenterik?

- a) Garatu egin behar dela mundua osotasunean hartzeko gaitasuna.
- b) Helduok kanpoko irudiak, hotsak eta gertaerak murrizketarik gabe jaso ditzakegula.
- c) Umetan baino ez dela posible kanpoko oro jasotzea.

23. Zer dio atentzioa fokuratzeaz?

- a) Zenbat eta gutxiago garatuta egon kortex aurrefrontala, zailagoa dela fokuratzea.
- b) Txikien kasuan, kortex aurrefrontalak eta diskriminazio-funtzioak laguntzen duela fokuratzen.
- c) Ondo fokuratzeke, kortexa hierarkizatuta eta ondo garatuta egotea komeni dela.

24. Nola berreskura dezakegu helduok, umeek mundua antzemateko duten gaitasuna?

- a) Zinema-areto baten iluntasunean jendez inguratuta.
- b) Hiru urtetik beherakoentzako film bat ikusita.
- c) Zineman film luze batek gudan izan dezakeen eraginari esker.

25. Zer da onuragarria neurobiologoek ustez?

- a) Hasierako hiru urteetan ingurunea osotasunean eta etengabe aztertzen egotea.
- b) 0-3 urte bitartean filmak pantaila handietan ikustea, zineman esaterako.
- c) Umeei ingurunea arau logikoen bidez aztertzen irakastea.

26. Zer erakutsi dute, besteak beste, *Naive physics*-en egindako ikerketek?

- a) Eskolara joan gabe ere, matematika-eragiketa txikiak egin ditzaketela umeek.
- b) Haurrak jakitun direla ikusten ez dituzten gauza batzuk ere egon badaudela.
- c) Hurrek badakitela baturak eta kenketak existitzen direla, nahiz eta egiten jakin ez.

27. Zer diote *Naive psychology*-ari lotutako azken aurkikuntzek besoko hurrez?

- a) Sei hilabeteko umeen ebaluazioa egiteko oztopoak dituztela, duten interakzio eskasagatik.
- b) Pertsonen jokabidearen arabera, haien izaera baloratu eta gustukoenak aukeratzeko dakitela.
- c) Pertsonen helburuak betetzen laguntzen dutela, zeharka bada ere.

3. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu testu zatia dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

ENPRESEN #sarekohizkuntzak

Gaur egun, enpresa eta erakunde askoren komunikazio-kanal bihurtu dira sare sozialak. Enpresa eta erakunde horiek oraindik ez dakite nola jokatu behar duten sare sozialetan edo zein izan beharko litzatekeen estrategia linguistiko egokiena, nahiz eta beste komunikazio-kanal batzuetarako hizkuntza-irizpideak zehaztuta eduki. **28**

Administrazioak gai honen inguruan hausnarketa egin du eta, dagoeneko, baditu irizpide batzuk zehaztuta *Eusko Jaurlaritzaren gizarte-sareetako erabileren eta estiloaren gidan*. Gainera, Administrazioaren kasuan legeak ere bide bat markatzen duela uste dugu. **29**

Aukerak asko dira, eta enpresa bakoitzaren ezaugarriek, bezero motak, merkatuak eta abarrek ere baldintzatu egiten dute aukera. **30**

EMUNek hainbat aditurengana jo zuen iritzi eske. Helburuetako bat esperientzia zehatzak ezagutzea izan zen. Horrela, *Euskadiko Kutxaren* kasua aztertu da. Argi daukate euskarak lehentasuna duela bezeroari begirako komunikazioan eta kontu bakarrean euskara eta gaztelania erabiltzen dituzte, bai *Twitteren*, baita *Facebooken* ere. *Deskontu.com* Interneteko enpresa bat da, eta euskara besteengandik desberdintzeko estrategia dela konturatu dira. Bezeroak eskertu egiten du euskarazko zerbitzua ematea, eta ondorioz, sare sozialetan euskara erabiltzen du.

Ternuak, berriz, hiru hizkuntza erabiltzen ditu kontu bakarrean: euskara, gaztelania eta ingelesa. Hemengo identitatea mantenduz, munduarekin hitz egin daitekeela azaleratzen du esperientzia horrek. *MUtelebistan* euskara da hizkuntza nagusia, eta gehienetan, aurkezpenak eta iradokizunak euskaraz daude eginak, eta azpitoluak gaztelaniaz eta ingelesez. Baina norbaitek beste horietako hizkuntza batean hitz egiten duenean, orduan azpitoluak beste hizkuntza bietan jartzen dira. **31**

Sarean egindako hausnarketa horri segida emateko, apirilaren 17an *#sarekohizkuntzak enpresetan* izeneko jardunaldia egin genuen Garaia Berrikuntza Gunean, eta EMUNekook gako batzuk aurkeztu genituen enpresek sareko hizkuntza-irizpideak definitzeko. **32** Euskal hiztunak diren bezero edo erabiltzaileekin euskaraz jardun beharko dute, eta sare sozialak bezeroekin harremanetan jartzeko beste kanal bat direnez, horretan ere irizpideak zehaztu beharko ditu enpresak.

Enpresek Internetera salto egin aurretik, hizkuntzaren gaia hausnartu behar dute, sare sozialetan zertarako egon nahi duten zehaztu eta horren arabera komunikazio-estrategia bat definitu. Koherentea izan behar du enpresaren Interneteko jardunak; argi eduki behar dute sarean esaten denak enpresaren identitatearekin zerikusia duela. Azken batean, lineaz kanpo, hau da, Internetetik kanpo, beraientzat euskara garrantzitsua bada, linean, Interneten, ere halaxe izan beharko da.

Horrez gain, eta enpresak sarean euskaraz egin nahi duela kontuan hartuz, jarduteko aukera batzuk proposatu genituen *#sarekohizkuntzak* hausnarketan, hainbatetan irten den galderari erantzun nahian edo: kontu bat hizkuntza bakoitzarentzat edo hizkuntza guztiak kontu berean? Gure ustez, enpresak sare sozialetan duen jarduna oso zabala ez bada, euskara eta erdara kontu bakar batean uztartzeak ikusgarritasuna ematen dio euskarari. **33**

Demagun kanal bakarrean jardutea erabakitzen duela enpresak, zein izango da irizpidea mezuak zabaltzeko orduan? Nola eman lehenetasuna euskarari? Gure ustez, ez dago informazio guztia hizkuntza guztietan errepikatu beharrik, zenbait informazio hartzaile konkretu bati zuzenduta dago eta horren hizkuntzaren arabera egin dezakegu. Bestetik, informazioa errepikatzen badugu zer mezu zabaldu behar da lehenengo?

Bukatzeko, aurretik aipatutakoak bezain garrantzitsuak diren bi gai aipatu nahi genituzke. Lehenengoa, hizkuntzaren kalitateari buruzkoa da; hizkuntza zuzena eta egokia erabiltzea beharrezkoa da. Erabilera desegokiak (ortografia-akatsak, esaldien argitasun eza...) enpresaren irudiari kalte egiten diote. Bigarrena, enpresako pertsona estrategikoen ingurukoa da; enpresa edo erakundeek kontu korporatiboak zabaltzen dituzte, baina askotan enpresako kideek parte hartzen dute horietan. 34

GONZALEZ, Edurne. Administrazioa euskaraz, 2012ko uztaila. Egokitua.

3. ariketa. Txertatu testu zatia

- A.** Horiek aztertuta, ezin esan jokatzeko modu bakarra gomendatu daitekeenik, beraz, enpresa bakoitzak bere hartzailea zer-nolakoa den kontuan hartuta, eta saldu nahi duen produktuari begira diseinatu beharko du bere komunikazio-estrategia.
- B.** Bideoak dira enpresek gaur egun erabiltzen duten beste medio bat, eta horretarako, *MU telebistak* erabiltzen duen irizpide berbera aplikatzea proposatzen dugu.
- C.** Kolaboratzaile horiek edo erakundeko pertsona estrategikoen ere hausnarketa egin beharko lukete sare sozialetan erabiltzen duten hizkuntzaren inguruan.
- D.** Baina jarduna oso zabala bada, hizkuntza bakoitzarentzako kontu bat erabiltzea proposatzen dugu.
- E.** Horrela, edozeinek onartzeko moduko formula sortu dute; euskaraz ondo moldatzen direnentzat eta berau ulertzen ez dutenentzat.
- F.** EMUNeko lantalde bat horri erantzuten saiatu gara azken hilabeteetan *#sarekohizkuntzak proiektuaren baitan*.
- G.** Uste dugu enpresek bezeroari bere hizkuntzan eman behar diotela informazioa.
- H.** Enpresa pribatuetan, ordea, ez dago lege edo araurik, eta beraien helburu komunikatiboak eta hartzaileak sarritan ez dituztenez oso ongi definituta, hizkuntza-irizpideak zehazteko arazoak izaten dituzte.

■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	28	29	30	31	32	33	34
Testu zatiak							

Soberakoa	
-----------	--

Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.
Gutxienez 180 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Lana dela eta, ordu asko ematen dituzue bulegoan ordenagailuaren aurrean eserita. Zuen zerbitzuan ez dago lan-arriskuak prebenitzeko planik eta horrek kalteak eragiten dizkizue osasunean.

Lankideen izenean, idatzi gutuna nagusiari. Dituzuen arazoan edota hutsuneen berri eman, eta proposatu bururatzen zaizkizun hobekuntza posibleak (altzariei, bulegoan egiteko ariketa fisikoei edota aire- eta argi-instalazioei lotuak, adibidez), betiere, ondo arrazoituta.

2. ariketa: Iritzi-artikulua idatzi herriko aldizkarirako

- **Egoera kontuan hartu** eta gaiari buruz daukazun iritzia azaldu behar duzu. Ez egin helbururik gabeko idazlanik: iritzia eman eta arrazoitu egin behar duzu, herriko aldizkarirako baita.
- **Gutxienez 180 hitz** idatzi behar dituzu.
- Laguntza gisa, gaiaren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait ideia.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazun ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak ezin dituzu besterik gabe kopia.

EGOERA: Atzo arratsaldean, etxean lasai zeundela, atea jo zuten. Mediku-aseguru pribatua eskaintzera zetorren komertziala zen. Entzun eta informazioa jaso ondoren, gaiaz jardun zenuten etxean: zer da hobe, osasun publikoa ala mediku-aseguru pribatua?

Atzoko bisitaldi horrek zer pentsatu eman dizu, eta zeure iritzia herriko aldizkarian argitaratzea erabaki duzu.

GAIA:

OSASUN PUBLIKOA ALA ASEGURU PRIBATUA?

Osasun publikoan beti hartuko dute gaixoa, adina, sexua edota gaixotasuna gorabehera; gaixo guztiak berdina dira.



Osasun publikoan, errendimendu ekonomikoa baina, herritarren osasuna lehenesten da.

Europako laugarren postuan gaude aseguru pribatuen erabilzaile kopuruan: herritarren %20.



Aseguru pribatuarekin: medikuak eta zentroak aukeran, eta akabo itzarote-zerrendak.

Osasun publikoa ez da doakoa, zergen bidez ordaintzen dugu, erabili zein erabili ez. Aseguru pribatuan, norberak erabakitzen du zer kontratatu eta zenbat ordaindu.

- Aukeratu ahal izango bazenu, zein aukeratuko zenuke: osasun publikoa ala aseguru pribatua?
- Zure ustez, non eskaintzen da zerbitzu hobe?
- Gaixotasun larrien kasuan, nola jokatzeko du herritarrak?
- Egia ote da Osakidetza Europako osasun publiko onenetarikoa dela? Badu zertan hobetu?

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

ERANTZUN ZUZENAK

■ **1. ariketa:** hutsuneak bete.

■ **Irakurgaia:** «Erabaki estrategikoetan, landa-eremuen...»

1.	A	2.	C	3.	D
4.	A	5.	C	6.	D
7.	B	8.	B	9.	B
10.	C	11.	D	12.	A
13.	D	14.	B	15.	B
16.	C	17.	D	18.	A

■ **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Irakurgaia:** «Besoko ume filosofikoa »

19.	C	20.	B	21.	A
22.	C	23.	A	24.	C
25.	A	26.	B	27.	B

■ **3. ariketa:** sartu testu zatia dagokion hutsunean.

■ **Irakurgaia:** «Enpresen #sarekohizkuntzak»

Hutsuneak	28.	29.	30.	31.	32.	33.	34.
Testu zatiak	F	H	A	E	G	D	C

Soberakoa	B
-----------	---